

EKITALDI ARETOA

Ekitaldi-aretoa Jesuitak Indautxu eskolan dago. Metro geltoki ireteerarik hurbilena Indautxuko Areiltza Doktorea da.

Aretoa heltzeko sarrera hurbilena Urkixo Zumarkaleko sarrera da. 76 zenbakiaren ondoz-ondo:



Eskolara sartzean, atari bat dago. Ezkerretara joanez eskailera gutxi batzuk daude, eta bertan ekitaldi-aretoa sartzeko atea dago.

Gurpil-aulkietarako sarbidea kaletik egin behar da, Areiltza Doktore kaletik. Sarbide hau erabili behar izanez gero, aldez aurretik jakinarazi behar da.

Eskailera-tarte txiki hori igota, ekitaldi-aretoa baino lehen, komunak daude .

Erakusmahai txiki bat jar daiteke liburuak eta materiala bertan erakusteko. Honezgain, biltegi txiki bat ere badago, materiala aldez aurretik ekarri nahi izanez gero bertan gordetzeko.

Aretoak 275 lagunentzako lekua du.

Berogailua dago eta aretoan dvd, divx, mp3 filmak proiektatzeko kanoia dago. Proiekzio erretraktila duen pantaila dago, eta hizlarietzako faldoidun mahaiak, bi atril eta mahaiko bi mikrofono, haririk gabeko bat jendearen eskura (inalanbrikoa).

Galderak eta mikrofono inalambriko berezi bat (diademakoa) hizlaria agertokitik ibili ahal izateko, eta jesarlekuetara jaitsi ahal izateko mikrofonoarekin.

Agertokian erregulatu ahal diren foku batzuk daude, mando batekin erregulatzen direnak.

Ordenagailurako/Wifirako konexioa dago. Komenigarria da antolatzaileek ordenagailua ekartzea, aurkeztu nahi duten aurkezpena modu egokian funtzionatzen duela ziurtatzeko.

ALOKATZEKO JARRAIBIDEAK:

Arduradunarekin harremanetan jarri ondoren, lekua ikusi ahal izateko egun bat adosten da, ezagutzen ez bada. Garrantzitsua da abisatu gabe ez etortzea, ekitaldi aretoa okupatuta egon daitekelako momentu horretan.

Atezainaren funtzioa ekitaldi-aretoa irekitzea da alokatzaileak eskatu dituen baliabideak instalatuz: mikrofonoak, mahaiak, ... Aitzitik, atezainaren funtzioa ez da izango emanaldia irauten duenean fokoak eta argietaz arduratzea. Horretaz, aretoa alokatzen dutenek arduratuko dira. Halaber, atezainak aurretik azalduko dio zelan egin.

Ekitaldi-aretoak 10 KW-ko potentzia duen ZETAC bat du argi-koadroan, soinua edo argi espezifikoak behar izatekotan. Betiere, teknikariak gainbegiratuko du koadroa erabilera egokia egiten ari den ziurtatzeko.

Bukatzeko, ikastetxe bateko areto nagusia dela jakinarazi nahi dugu. Horrek esan nahi du ez daudela kamerinorik, ez mastilarik banderentzat, ez soinurako nahasketa-mahaiak, ezta kea jaurtitzeko tramankulurik ere.